



ARDURADUNA: Hitzaro Euskara Elkartea

PARTAIDEAK: GOIERRIKO BERTSO ESKOLA, AEK, HITZARO

DATA: Abenduaren 3a

HELBURUAK:

Euskara eta euskal kulturarekiko errespetua, zaletasuna sortzea.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Euskara eta euskal kulturarekiko errespetua zaletasuna, lantzea.

BALIABIDEAK:

Giza-baliabideak eta gaztaina-jana antolatzeke beharrezkoak direnak, baita edaria ere

BALORAZIOA:

Oso positiboa da.

Herritarrek gustura parte hartzen dute bai gaztaina-janean baita Larrun Arrirekin antolatzen dugun Kantu Jiran ere.

Herriari bizitasuna ematen dio egun horretan ekintza honek.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Herriko eragile gehiagok parte hartzea.



ARDURADUNA: Hitzaro Euskara Elkartea

PARTAIDEAK: HITZARO EUSKARA ELKARTEA, LARRUN ARRI ELKARTEA

DATA: Abenduak 3

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Euskara eta euskal kulturarekiko errespetua eta zaletasuna lantzeko helburuarekin, Euskararen Eguna ospatzen da, urtez urte, euskal giroan hainbat ekintza antolatuz (gaztaina jana, musika, kalejira, etab).

BALIABIDEAK:

- Pertsonalak:
 - Bolondresak: 3
 - Langileak: 2
 - Zuzendaritzakideak: 3
- Azpiegiturak:
 - Udalak: Mahaiak eta musika jarri ditu.
 - Hitzarok: Danbolina eta gaztainak jarri ditu.
 - Larrun Arri elkarteak: Kantu jira egin du.

BALORAZIOA:

Oso balorazio positiboa egin da elkartearen aldetik. Jendeak kantu jiran parte hartu du eta gaztina janaren inguruan jende asko bildu da. Salmentan jarritako guztia amaitu da.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Jendeak eguna ezagutu dezan zerbait gehiago egitea proposatu da. Datorren urtera begira egitaraua gehiago landuko da eta ekintza berriak antolatu nahi dira.

2012-2013 IKASTURTEA



ARDURADUNA: AEK

PARTAIDEAK: Ordiziako Jubilatuen euskara taldea

DATA: 2012ko abenduaren 3a

BALIABIDEAK:

Abenduan, .euskararen eguna zela eta lanketa berezia egin genuen gelan. Ondoren "euskaraz bizi nahi dut" lelopean herriko enparantzan kokatutako panel berezian gure nahia adieraztera irten ginen. Inoiz ez dela berandu eta euskaraz bizi nahi dugula idatzi genuen aipatutako panel horretan.

BALORAZIOA:

Ona. Beren nahia adierazteko aukera izan zuten eta.

“Euskaraz bizi nahi dut” lasterketa herrikoia

PARTAIDEAK: Euskararen aholku batzordea, AEK, Hitzaro, Kirol aholku batzordea, Kirol Arola, Eskola kirola, Ikastetxeak, herritarrak.

DATA: abenduaren 3a

HELBURUAK:

- Euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzea.
- Lasterketare bidez, euskarari indarra ematea.
- Euskararekiko konpromisoa zabaltzea herrian.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Abenduaren 3an euskararen eguna ospatzen da. Horregatik, Ordiziako Udalak, Kontseiluarekin eta Emaneurre taldearekin batera, “Euskarazi bizi nahi dut” lelopean lasterketa herrikoia eta ez lehiakorra antolatu dute. Lasterketak hiru ibilbide ditu eta arratseko 18:30ean hasi da Plaza Nagusian. Hona hemen ibilbideen gaineko informazioa:

18:30. LH 3-4 mailak. Herriguneari buelta bat. 375 metro.

18:45. LH 5-6 mailak. Herriguneari bi buelta. 750 metro.

19:00. DBH1etik aurrera eta helduak. Herriguneari bost buelta. 2765 metro.

BALIABIDEAK:

Lasterketarako materiala.

BALORAZIOA:

Lasterketa herrikoia, partehartzailea eta ez lehiakorra izan da.

Eragileekin hitzez jasotakoa, balorazio ona. Euskara Zerbitzuaren webgunean informazio zabala eskaini dugu ekimen honi buruz:

<http://www.ordizia-euskaraz.eus/albisteak/euskararen-aldeko-lasterketa-herrikoia>

“Gabrielen lekua” antzezlan

PARTAIDEAK: Euskara zerbirzua, Urdaneta Ikastetxea, Jakintza Ikastola, herritarrak

DATA: 2013ko abenduaren 10a, goizean ikasleentzat eta arratsaldean publiko ororentzat.

HELBURUAK:

- Gabriel Arestiren pertsona eta lana eguneratzea.
- Bertsolaritza eta euskal kultura uztartuz, herritarrengana hurbiltzea Gabriel Arestiren bizia.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Antzezlan honek, bertsolaritza eta euskal kultura uztartzen ditu. Honela, bi saio lpanteatu dira: lehenengoa goizez DBH4 eta Batxilergoko ikasleentzat (unitate didaktikoa ere badu antzezlanak) eta arratsaldean publiko ororentzat. Zabalpena eskuorri bidez egin da (4300 herri osoan), baina baita ere, Udaleko agendan da eta prentsan agertu da.

BALIABIDEAK:

Unitate didaktikoa, zabalpen esku-orria, antzezlan.

BALORAZIOA:

Goizeko saioa guztiz beteta egon da (330 bat pertsona) baina arratseko saiora oso pertsona gutxi gerturatu da. Hori dela eta, ikastetxeen partetik goizeko saioak oso balorazio ona jaso du, arratsekoa tamalez ez da arrakastatsua izan.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Zabalpena hobetze aldera beste bide batzuk jorratu beharko lirateke.

2014-2015 IKASTURTEA



“Euskaraz bizi nahi dut” lasterketa herrikoia

ARDURADUNA: AITZOL AZPIROZ

PARTAIDEAK:

Partaideen kopurua: 222 Gizonezkoak 114 (% 51,35) Emakumezkoak 108 (%48,65)

Hartzailearen adina:

18:30etan LH 3-4

18:45etan LH 5-6

19:00etan DBHtik aurrera (helduak barne)

DATA: Abenduak 3, euskararen eguna.

HELBURUAK:

Euskararen sustapena. Belaunaldi desberdinak elkartuko dituen ekintza interesgarriak eskaini.

Landutako balioak:

Lasterketa ez lehiakorra izan da, ez da irabazlerik egon eta garrantzitsuena euskararen aldeko jarrerak bultzatzea.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Euskararen egunean ekintza desberdinak antolatzen dira. Arratsaldean lasterketa herrikoia garrantzi nabarmena hartu du. 200 partaidetik gora ibili dira euskararen alde korrikan Ordiziako alde zaharrean. Hiru lasterketa egiten dira adin desberdinentzako eta bukaeran hainbat sari zozketatzen dira. Orokorrean oso giro polita sortzen da eta bereziki gazteak oso pozik dabilzate.

METODOLOGIA ekintza antolamendua (burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):

Bilerak:

- Kirol aholku batzordea. Kirol taldeei ere gutuna bidaltzen zaie.
- Euskara Aholku Batzordea.
- Ikastetxeak.
- Udaltzainak.
- Goierriko Hitza.
- Kontseilua.
- Eskola kiroleko arduradunak.
- Gazte Asanblada.

BALIABIDEAK:

- Espazio publikoa okupatzen da eta beraz baimenak eskatu behar dira.
- Laguntzeko hainbat pertsona aritu ziren. Eguneko kontratazioa egin zen.
- Goierriko Hitzak arku puzgarria utzi zigun.

BALORAZIOA:

Balorazioa aholku batzordean eta ikastetxeekin egindako bileretan burutzen da. Aurten, iaz bezala, balorazioa positiboa izan da, bai parte hartzeari dagokionez baita sortu zen giroari buruz.

Euskararen eguna indartzea izan da herritarrek partaidetza prozesuan lehenetsi duten neurria. Bestalde, hiri hezitzaile proiektuan txertatuta belaunaldi berriak elkartu nahi ditu, betiere euskararen sustapena jomuga delarik.

Euskararen alde dauden eragileak plazaratzea eta euskararen alde urte osoan egiten den lanaren erakusgarri dugu. Baloreen ikuspegitik gizon-emakumeen berdintasuna, ez lehiakortasuna, euskararen bidezko integrazioa, euskararen sustapena.... Balio positibo asko biltzen dituen ekimena da.



Jostailu tailerra

ARDURADUNA: AITZOL AZPIROZ

PARTAIDEAK:

Partaideen kopurua: 17 Gizonezkoak : 13 (%76,47) Emakumezkoak: 4 (%23,53)
 Hartzailearen adina: Haurrak(0-12)

DATA:

Abenduak 18: Birziklatutako jostailuak sortzen
 Abenduak 19. Jolas kooperatiboak.

HELBURUAK:

- Aisiaren esparruan euskarazko eskaintza handitzea.
- Euskaraz ekintza interesgarriak martxan jartzea.
- Birziklapena lantzea.
- Era kooperatibo batean jolasten ikastea.

Landutako balioak:

BIRZIKLAPENA, KOOPERATIBOA, SORMENA, EUSKARA, GENERO IKUSPEGIA.

EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:

Abenduaren 18an eta 19an bi tailer antolatu dira Txatxilipurdi elkartearen eskutik. Bertan LH 3-4-5 eta 6 ko ikasleek hartu dute parte.

METODOLOGIA ekintza antolamendua (burututako bilerak, burutze faseak eta ebaluazioa nola egiten den):

Metodologiari dagokionez jolas kooperatiboak dira, ez lehiakorrak eta guztion parte hartzea bermatzen duena. Saiatzen gara genero ikuspegia kontuan hartzen eta hezitzaileak, ahal bada, gizona eta emakumea izatea eskatzen dugu.

BALIABIDEAK:

Gaztelekua, bi hezitzaile eta materialak.

BALORAZIOA:

Balorazioari dagokionez urtero ikastetxeekin egiten diren bileretan baloratzen da egitasmoa; parte hartzea, hobetzekoak...laz maila igotzea adostu zen eta LH 5-6ra ere iritsi gara. Bigarren saio honetara ez ziren pertsona gehiegi hurbildu eta beraz LH 1-2-3-4rako egingo dira berriro ere. Elkarreak ere balorazio positiboa egin zuen, bigarren saioan nahiz eta pertsona gutxi hurbildu oso dinamikoa izan omen zen.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Kasu honetan maila aldatzea parte hartzea igotzeko.